

21-05. Es el agónico y desigual resultado del imaginario partido de pelota que tenemos que disputar a diario las ganaderas y ganaderos navarros, sometidos por la multiplicación de nuestros costes productivos frente a la congelación del precio de los productos que elaboramos. Desgraciadamente, hay contundentes datos que avalan nuestras amargas quejas y que ponen en serio peligro la existencia de las explotaciones ganaderas y de los propios núcleos rurales.

21, como es fácil suponer, es el año en el que vivimos. Un año en el que hemos visto cómo los piensos con los que alimentamos a nuestros animales subían nada menos que un 25%, a lo que hay que añadir la subida del precio de la energía. Según el propio Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, en los cinco últimos años tras restar al precio de venta, solamente el coste de alimentación y compra del ternero pastero, el margen medio por cada 100 kilos de carne producida en cebo de terneros, se ha reducido de 104 a 60 euros, lo que nos da una idea de la tendencia sectorial.

05 es el año en el que los precios que recibimos por los productos que elaboramos se quedaron congelados. Paradójicamente, en una época en la que el consumo de alimentos se ha disparado por efecto de la pandemia y la cesta de la compra es un 40% más cara que hace 15 años, ese incremento no se ha visto reflejado en los ingresos de las ganaderas y ganaderos.

Más bien al contrario, la industria transformadora, y la gran distribución han sido los verdaderos beneficiados de este boom consumidor. A los productores, tan elogiados al comienzo de esta crisis sanitaria por nuestra condición de esenciales, nos han vuelto a apretar las clavijas, viéndonos obligados a vender por debajo del precio de coste en muchos casos. Una vez más, la palabrería suplanta a la justicia.

Lo mismo sucede con la Ley de la Cadena Alimentaria, un instrumento que no solo debería garantizar cubrir costes a los distintos eslabones de la misma, sino un reparto justo del valor añadido que se genera y un margen suficiente para que las explotaciones ganaderas familiares no tengan que pensar solo en subsistir, que es lo que ocurre hoy día, sino en ser opciones laborales atractivas para garantizar el necesario asentamiento poblacional que asegure el futuro del medio rural.

Por eso estamos aquí, para reclamar a la Administración que ponga los medios imprescindibles de cara a acabar con la asfixiante situación que vive la ganadería familiar navarra, que ahora mismo solo se sostiene por las ayudas vía PAC, una dependencia que no nos gusta y que, además, está mal repartida. Si la actual coyuntura se extiende en el tiempo, el espacio de esas pequeñas explotaciones lo ocuparán otras de carácter industrial, que todos sabemos las terribles repercusiones que tienen hacia el entorno natural.

De ahí que necesitemos la complicidad de los consumidores, sobre todo en unos momentos en los que algunos de nuestros productos, como la carne, están sufriendo una injusta campaña de desprestigio. Creemos que es más importante comer buena carne en lugar de mucha. Sin el apoyo de la sociedad y de las instituciones que la representan, no conseguiremos darle la vuelta al marcador de un partido de pelota en el que nos va la pervivencia o la desaparición de la ganadería navarra.

HAY QUE DARLE LA VUELTA A ESTE PARTIDO.

21-05. Nafarroako abeltzainek egunero jokatu behar dugun pilota-partida imaginarioaren emaitza itogarria dugu hau. Gure kostuek eten gabe gora egiten duten bitartean gure produktuen prezioa, joan den aspaldian izoztuta daukagu. Zoritxarrez, gure kexa mingotsak benetakoak direla erakusten dituzten datu sendoak daude, abeltzaintza ustiategiak eta landa guneko herriskak, arrisku larrian jartzen dituztenak.

21 zenbakiarekin, bizi garen urtea erakutsi nahi dugu. Urte honetan gure animaliak elikatzeko erabiltzen ditugun pentsuen kostuak, % 25 igo direla ikusi dugu, eta azken aldian energia zer esanik ez. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren arabera, azken bost urteetan bataz beste, gizendutako 100 kilo haragi txahal bakoitzeko eta salmenta prezioari txekorra erostearen eta pentsuaren kostua besterik kendu gabe, marjina 104 eurotik 60 eurora jaitsi omen da; hauxe dugu sektore honen joera.

05 zenbakiak berriz, gure produktuengatik jasotzen dugun etekiña edo prezioa, izoztuta geratu zen urtea erakusten du. Paradoxikoki, pandemiaren eraginez elikagaien kontsumoak gora egin duen garai honetan, eta erosketa-saskia duela 15 urte baino % 40 garestiagoa bada ere, hazkunde hau ez da abeltzainen diru-sarreretan islatu.

Aitzitik, eraldaketa-industria, eta merkaturatze-azalera handiko komertzioa, izan dira kontsumo hazkunde horren benetako onuradun nagusiak. Osasun krisi honen hasieran funtsezkoak omen giñen eta goraiatuak izan giñen, baina berriz ere ederki estutu gaituzte, eta askotan kostu-prezioaren azpitik saltzera behartu. Lozintzeko hitzak bai, baina justiziarik ez.

Elikagai Katearen Legeari dagokionez, lehengo lepotik burua, izan ere, tresna horrek, kate hortako aurreko begiari kostua gutxienez ordaindu ez ezik, sortzen den balio erantsiaren banaketa justua bermatu beharko luke, hau da, abeltzaintza-ustiategiei bizi irautea baino zerbait gehiago eskeintzen duen margen bat behar dute, lan aukera erakargarri bihurtuz, eta landa ingurura jendea ekarriko duen etorkizuna bermatuz.

Horregatik gaude hemen, Administrazioari, Nafarroako familia arteko abeltzaintzak bizi duen egoera itogarria amaitzeko beharrezkoak diren baliabideak jar ditzan eskatzeko; izan ere, orain NPBren bidezko laguntzei esker iraunten dute ustiategi askok, eta mendekotasun hori ez zaigu gustatzen, eta gainera, gaizki banatuta daude. Egungo egoera denboran luzatzen bada, ustiategi txiki ugariaren espazioa, industria-izaerako beste batzuek hartuko dute, eta landa eremuetan zer-nolako ondorio latzak ekarriko lituzken, guztiok badakigu.

Hori dela eta, kontsumitzaileen konplizitatea behar dugu, batez ere gure produktuetako batzuen aurka, haragia kasu, kanpaina bidegabea jasaten ari garen garai hauetan. Askok jatea baino, haragi ona jatea garrantzitsuagoa dela uste dugu. Gizartearen eta ordezkatzan duten erakundeen babesik gabe, ez dugu lortuko pilota partida hau iraultzea, zeinetan Nafarroako betiko abeltzaintzaren biziraupena, hala desagertzea, jokatzen ari garen.

PARTIDA HONI BUELTA EMAN BEHAR DIOGU!!